



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2022ko urriaren 17ko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, urriaren hamazazpian, seietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

**Hor zirenak** : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

**Barkatuak zirenak** : CASIRIAIN Elena, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton.

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : MATEO Jean François

Deialdiaren eguna : 2022ko urriaren 12a

Afitxatze eguna : 2022ko urriaren 12a

### **3. ERABAKIA: BAZKALEKUEN PREZIOAK**

*(7.1 nomenklatura)*

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio bazkalekuen prezioak 2015eko urriaren 6ko erabakiz finkatu zirela.

Transhumantzia eskaera berriak direla-eta, Auzapezak prezio horien osatzea eta moldatzea proposatu du.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- Bazkalekuen prezioak honela **FINKATU DITU**:

ARDIAK		ABELGORRIAK (behiak)			AHUNTZAK		ZALDI-ASTO-POTTOKA	
Urte 1etik gorako helduak eta erditu duten ardiak	Bildotsak	2 urtetik gorako abelgorriak	6 hilabete eta 2 urte arteko abelgorriak	6 hilabetetik beherako abelgorriak	Urte 1etik gorako helduak edo erditu duten ahuntzak	Pitikak	6 hilabetetik gorako helduak	Zaldikumeak
3 euro buru bakoitzeko	0 euro	25 euro buru bakoitzeko	15 euro buru bakoitzeko	0 euro	3 euro buru bakoitzeko	0 euro	25 euro buru bakoitzeko	0 euro

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 12

Balitzko boz kopurua : 12

ALDE : 12  
KONTRA : 0  
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko urriaren 25ean  
Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2022/10/27an publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/10/27an.